

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1107

63/2025 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Jose Bernardo Ormazabal andrea Gaueko Gainbegirale Orokor kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan.

368/2019 Ebazpenaren bidez, María Jose Bernardo Ormazabal andrea Gaueko Gainbegirale Orokor izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Jose Bernardo Ormazabal andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Gaueko Gainbegirale Orokor kargutik kentzea, erretiroa hartu duelako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko martxoaren 9ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Goierri-Urola Garaiko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zumarraga, 2025eko otsailaren 27a.

Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari-gerentea,
LAURA AGUIRRE ALBERDI.